



FARMAZIA – ARABAKO ESI-A
Lehen Mailako Arretako Farmazia
e-mail.: farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus

2026ko Uztaila	
PRESBIDE BERRIKUNTZAK 20 zorro/konprimatuko antibiotikoentzako ontziaren iraupen aurredefinitua - Pautaren zabalgarria aldatu da	1 Jarraitu irakurtzen
FIXAPROST UNIDOSIA HORNIDURARIK EZAGATIK ORDEZTEKO SALBUESPENEZKO BAIMENA	2 Jarraitu irakurtzen
ATZERRIRAKO BIDAIE TAN TXERTAKETA ETA PROFILAXIA	3 Jarraitu irakurtzen
FARMAZIA-BULEGOEN ETA OSAKIDETZAKO LEHEN MAILAKO ARRETAREN ARTEKO KOMUNIKAZIO-KANALAREN PILOTAJEA	4 Jarraitu irakurtzen
TOPIRAMATOARI LOTUTAKO ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO MATERIALAK	5 Jarraitu irakurtzen
ARGITALPEN INTERESGARRIAK - INFAC: Pisu molekular txikiko heparinak eta fondaparinuxa - i-botika fitxa: PEDIATRIAREN ALORREKO MEDIKAMENTUAK: EZ DA JOLASA!-D bitamina: dosi zuzena da gakoa - AHA/ACC/ADA/ASN 2026 gida, sindrome kardiobaskular-giltzurrun-metabolikoa prebenitzeko, detektatzeko, ebaluatzeko eta maneiatzeko - Insomnio kronikoan benzodiazepinak epe luzera erabiltzearekin lotutako arriskuak: berrikuspen sistematiko bat eta meta-analisi bat (sarean)	6 Jarraitu irakurtzen
ERREZETA BIDEZ PRESKRIBATZEN DIREN MEDIKAMENTUEI BURUZKO HILABETEKO BERRITASUNAK	7 Jarraitu irakurtzen
MEDIKAMENTUEN HORNIDURA-GABEZIAK ETA -BERREZARPENAK	8 Jarraitu irakurtzen
BIDAIARIENTZAKO ERREZETAK Euskaditik kanpora doazen erabiltzaileentzako preskripzioak	9 Jarraitu irakurtzen
INYESPRIN- ATZERRIKO SENDAGAIA	10 Jarraitu irakurtzen

1 PRESBIDE BERRIKUNTZAK

[2026ko ekainako Presbideren nobedadeen](#) buletin bat argitaratu da:

- **20 zorro/konprimatuko antibiotikoentzako ontziaren iraupen aurredefinitua:** AEMPSk, Antibiotikoekiko Erresistentziaren aurkako Plan Nazionalaren (PRAN) esparruan, zenbait antibiotikoren formatu handienak ezabatuko ditu merkatutik, sendagai horien erabilera zuzena optimizatzeko eta erresistentziak murrizteko. Beraz, Presbide eguneratu da, 20 konprimatu/gutun-azalen Amoxizilina eta Amoxizilina/azido klabulanikoko ontziaren iraupena, lehenetsita, 7 egunekoa izan dadin. Horrela, egunean 3 hartualdi agindu badira 7 egunez, 20 dosiko ontzi bat bakarrik eman ahal izango da. Oro har, jarraibide laburrak erabiltzea gomendatzen da (7 egun edo gutxiago). 7 eguneko jarraibideetan/3 hartualditan, nahikoa da 20 unitateko ontzi batekin. Azken unitatea ez da beharrezkoa. [Diptiko informatiboa](#)
- **Pautaren zabalgarria aldatu da:** "Pauta" zabalgarriaren edukia preskribatu nahi den medikamentura egokituko da. Funtzionalitate berri horrek jarraibide "desegokiak" baztertzeko aukera ematen du DOE/CODNAC aurkezpen-mailan, jarraibideak oker hautatu ez daitezzen. Esate baterako, menu zabalgarrian ez dira eskuragarri egongo asteko, hileko edo hiruhilekoko jarraibideak dituzten medikamentuak. Lehendik aktibo zeuden preskripzioak ematen jarraitu daitezke, baina, preskripzioa berritu behar denean, jarraibide berria hautatu beharko da.

Webgunean eskuragarri daude argitaratutako [gainerako buletinak](#) eta [hobekuntzak](#) ere.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

2 FIXAPROST UNIDOSIA HORNIDURARIK EZAGATIK ORDEZTEKO SALBUESPENEZKO BAIMENA

Osasun Sailak jakinarazi duenez, **FIXAPROST 50 MIKROGRAMO/ML + 5 MG/ML KOLIRIOA DOSI BAKARREKO ONTZIETAN, 0,2 ml-ko dosi bakarreko 30 ontzitan** (KN: 723944) hornidurarik ez dagoela balioetsi ondoren, kolirioaren preskripzioak monodosi formatuan ordezteko baimena ematen da, flaskoko aurkezpenekin, errezeta elektronikoa zein paperean, egoera horrek irauten duen bitartean edo Sailak erabakitzen duen bitartean.

Ordezkapena egiteko, printzipio aktibo, dosi eta eduki-unitate bera izan behar duela hartuko da kontuan.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

3 ATZERRIRAKO BIDALETAN TXERTAKETA ETA PROFILAXIA

Osasun Publikoko Zuzendaritzak [ohar](#) hau egin du atzerrira egindako bidaien aurkako txertaketari eta profilaxiari buruz. Bertan esaten denez, atzerrira egindako bidaietan txertoak eta prebentziozko sendagaiak Atzerriko Osasunari dagozkio, eta Erkidegoko Nazioarteko Txertaketa Zentroetan ematen dira.

Erkidegoko nazioarteko txertaketa-zentroek indikatutako txertoak eta profilaxia, Osakidetzako profesionalek eman behar dituzte zentroetan eta euren gomendioei jarraituz.

Osasun Sailak finantzatzen ez dituen indikazioetarako, Nazioarteko Txertaketako medikuak errezeta bat egingo du, erabiltzaileak berak farmazian eros dezan txertoa. Txertoa injektagarria bada, gure profesionalek eman behar dituzte Osakidetzako osasun-zentroetan, haien gomendioei jarraituz.


[HASIERA-ra Itzuli](#)

4

FARMAZIA-BULEGOEN ETA OSAKIDETZAKO LEHEN MAILAKO ARRETAREN ARTEKO KOMUNIKAZIO-KANALAREN PILOTAJEA

Farmazia-bulegoen eta Lehen Mailako Arretaren arteko komunikazio-kanalaren proiektuaren bigarren fasea martxan jarri da. Bertan, LMU berriak sartu dira, eta prozeduran aldaketaren bat egin da.

Proiektuaren helburua komunikazio-prozedura bat ezartzea da, farmazia-bulegoaren ohiko jardunean gertatzen diren intzidentziak arin kudeatzeko eta Osakidetzako profesionalei (batez ere Lehen Mailako Arretakoei) pazientearen tratamenduari edo pazientearen beste zenbait alderdiri buruz garrantzitsutzat jotzen diren oharak helarazteko.



OSI	UAP
OSI ARABA	Zaramaga, Montaña Alavesa, Valles I, Olárizu
OSI BARAKALDO-SESTAO	La Paz, Kueto
OSI BARRUALDE-GALDAKAO	Etxebarri, Arrigorriaga
OSI BIDASOA	Hondarribia, Dumboa, Irun Centro
OSI BILBAO-BASURTO	Mina del Morro, San Adrián
OSI DEBABARRENA	Elgoibar, Deba
OSI DEBAGOIENA	Bergara, Valle de Leniz
OSI DONOSTIALDEA	Zarautz-Orio-Aia, Gros
OSI EZKERRALDEA-ENKARTERRI-CRUCES	Buenavista, Trápaga-La Arboleda
OSI GOIERRI-UROLA GARAIA	Lazkao, Azpeitia
OSI RIOJA ALAVESA	Rioja Alavesa
OSI TOLOSALDEA	Andoain, Ibarra
OSI URIBE	Alango, Mungia

Informazio gehiago [intranet korporatiboan](#).

[HASIERA-ra Itzuli](#)

5

TOPIRAMATOARI LOTUTAKO ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO MATERIALAK

Jarraian, topiramatoari lotutako arriskuaren prebentzioari buruzko hainbat materialetarako sarbidea ematen da. Material hauen helburua larritasunagatik garrantzitsutzat jotzen diren zenbait arrisku agertzeko aukera ahalik eta gehien murrizten laguntzea, eta pazienteari horretarako informazioa ematea da.

Material hauetan jasotako kudeaketa-gomendioek ez dute aldaketarik izan aurreko bertsioarekiko; komunikazio periodiko gisa birbanatzen dira, osasun-profesionalak behar bezala informatuta egon daitezzen.

- [Osasun-profesionalentzako informazio-gida](#)
- [Pazientearentzako informazio-gida](#)
- [Topiramatoa erabiltzeak osasun-profesionalentzat duen arriskua ezagutzeko formularioa](#)
- [Pazienteentzat topiramatoa erabiltzearen arriskua ezagutzeko formularioa](#)
- [Pazientearentzako informazio-txartela](#)

Material hauek AEMPSen webgunean ere eskuragarri daude [esteka honetan](#).

[HASIERA-ra Itzuli](#)

6 ARGITALPEN INTERESGARRIAK

INFAC: Pisu molekular txikiko heparinak eta fondaparinuxa

[Web orrialdean](#) "Pisu molekular txikiko heparinak eta fondaparinuxa" izeneko INFAC buletin berria eskuragarri dago. [Buletin](#) honen helburua da PMTHek eta fondaparinuxak indikazio nagusietan duten eraginkortasuna berrikustea, haien dosifikazioa eta segurtasun-kontsiderazioak ere.

i-botika fitxa: PEDIATRIAREN ALORREKO MEDIKAMENTUAK: EZ DA JOLASA! -D bitamina: dosi zuzena da gakoa

"PEDIATRIAREN ALORREKO MEDIKAMENTUAK: EZ DA JOLASA! - D bitamina: dosi zuzena da gakoa" gaiari buruzko herriarren informazioko i-botika fitxa berri bat argitaratu da. Bertan, hura modu seguruan emateko gomendioak jasotzen dira.

[Esteka](#) honetan kontsulta daiteke fitxa.

AHA/ACC/ADA/ASN 2026 gida, sindrome kardiobaskular-giltzurrun-metabolikoa prebenitzeko, detektatzeko, ebaluatzeko eta maneiatzeko

Sindrome kardiobaskular-giltzurrun-metabolikoari buruzko AHA/ACC/ADA/ASNren 2026. [gidak](#) eguneratu eta zabaldu egiten du helduetan gehiegizko pisua eta obesitatea maneiatzeko buruz 2013an argitaratutako gida. Sindrome hori duten pertsonak artatzen dituzten osasun-profesionalak orientatzea du helburu nagusi. Gidan azaltzen da elementu horiek nola lotzen diren elkarren artean eta nola heldu elkarrekin pazienteen osasuna hobetzeko.

Insomnio kronikoan benzodiazepinak epe luzera erabiltzearekin lotutako arriskuak: berrikuspen sistematiko bat eta meta-analisi bat (sarean)

[Berrikuspen](#) honek insomnio kronikoa duten helduek 3 hilabete baino gehiago benzodiazepinak erabiltzearen arriskuak ebaluatzen ditu. Emaizak iradokitzen dute denbora luzez erabiltzeak loaren kalitatea, osasun mentala eta bizi-kalitatea okerragotu ditzakeela. Eskura dagoen ebidentzia mugatua bada ere, gomendatzen da benzodiazepinak luzaroan ez erabiltzea eta esku-hartze ez-farmakologikoak eta segurtasun-profil hobea duten alternatibak lehenestea.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

7 ERREZETA BIDEZ PRESKRIBATZEN DIREN MEDIKAMENTUEI BURUZKO HILABETEKO BERRITASUNAK

Uztailean ez dago berritasunik.

2020ko urtarrietik aurrerako berrikuntzak biltzen dituen [dokumenturako esteka](#).

[HASIERA-ra Itzuli](#)

Hilabete honetako HORNIDURA-GABEZIA garrantzitsuenak:

- Royen® (635 mg Ca) (kaltzio azetatoa) 2,5 g hautsa ahozko suspentsiorako, 30 eta 60 zorro
- Atamax®, Atomoxetina Cinfa®, Atomoxetina Tarbis® (Atomoxetina hidrocloruro) 80 mg, 28 kapsula
- Iruxol mono® pomada (Clostridiopeptidasa / proteasas) 30 g-ko hodia
- Oralsone adultos® (Hidrocortisona hemisuccinato) 2,5 mg 12 txupatzeko konprimitu
- Fixaprost® (Latanoprost/Timolol) 50 mikrogramo/ml + 5 mg/ml kolirio disoluzioan, 0,2 ml-ko 30 ontzi
- Constella® (Linaclotida) 290 mikrogramo 28 kapsula
- Metsunix® (Metformina / Sitagliptina) 50 mg/500 mg 56 konprimitu askatze luzea
- Imigran® (Sumatriptan) 10 mg eta 20 mg sudurreko lainoztapenerako soluzioa dosi bakarreko 2 ontzi

HORNIDURA-BERREZARPENAK:

- Ubtest®, Tau-kit® (13-urea) 100 mg konp 1
- Royen® (kaltzio azetatoa) 500 mg 60 eta 120 kapsula gogor
- Adisocol® (azido ursodeoxikolkoa) 450 mg 60 konp
- Trankimazin retard® (alprazolam) 3 mg 30 konprimitu askatze luzea
- Largactil® (klorpromazina) 100 mg konp estali
- Cholestagel® (colesevelam) 625 mg 180 konprimitu estali
- Doxiciclina Normon® 100 mg konprimitu estali, 42 gragea
- Actiq® (fentaniloa) 600 mikrogramo 30 txupatzeko konprimitu (ahoko aplikagailuarekin)
- Micetal® (flutrimazol) 10 mg/g larruazal-hautsa, 30 g-ko poto bat
- Uniket®, Mononitrato de isosorbida Normon® EFG (isosorbidaren mononitratoa) 40 mg 20 konprimitu
- Levotiroxina sodikoa Teva® 100 mikrogramo, 100 konprimitu
- Urbason® (metilprednisolona) 4 mg, 10 eta 30 konprimitu
- Metoject® (metotrexato) 7,5 mg / 0,15 ml xiringa 4 bakoitzeko
- Metoject® (metotrexato) pen 17,5 mg aurrez kargatutako 4 luma 0,35 ml disoluzio injektagarria
- Manerix® (moklobemida) 150 mg 30 konp estaliak
- Risperidona Viatris®, Cinfamed®, Stada® 0,5 mg 56 konp estaliak
- Amchafibrin® (azido tranexamikoa) 500 mg 30 konprimitu
- Depakine Crono® (sodio valproatoa, azido valproikoa) 500 mg, 100 konp. askatze luzea
- Zolpidem Normon® 5 mg 30 konprimitu
- Hidroklorotizida Cinfa® (hidroklorotiazida) 12,5 mg 20 konp
- Psicotric retard® (quetiapina fumarato) 300 mg konp askapen luzea, 60 pilula
- Dariante EFG®, Neupro® (errotigotina) 1 mg/24 h 28 partxe transdermiko 1,84 mg
- Neupro® (errotigotina) 3 mg/24 h 28 partxe transdermiko 6,75 mg

PRESBIDEN “Hornidura-gabezia” botoia eskuragarri dago, “Preskripzioen kontsulta” pantailaren beheko aldean, hornidura-gabeziei buruzko informazio erabilgarria erakusten duena.



Hornidura-gabeziak esteka honetan kontsulta daitezke:

- Presbiden: [Hornidura-gabezien taula](#)
- CIMA-AEMPSen: [AEMPSen medikamentuen hornidura arazoak](#)

[HASIERA-ra Itzuli](#)

9

BIDAIA-ERREZETAK

BIDAIA-ERREZETAK – EUSKADITIK KANPORA DOAZEN ERABILTZAILEENTZAKO PRESKRIPZIOAK

Egonaldi luzeko bidaietan Euskaditik kanpora joaten diren pazienteen preskripzioei buruzko zalantzak argitzeko, Osakidetzak Presbide - eRezetan tratamenduen jarraitutasuna bermatzeko emandako jarraibideak aurrerago gogorarazten dira:

Oro har, ez da gomendatzen kreditu gehigarria erabiltzea egoera horietarako; izan ere, hori erabiltzeak pazienteek behar dutena baino botika gehiago kontsumitzea edo metatzea ekar dezake.

- BIDAIA-BESTE AUTONOMIA-ERKIDEGO-BATERA

Elkarreragingarritasuna dago autonomia-erkidego guztiekin. Osasun Sistema Nazionalak (OSN) aseguratutako pertsonen Estatuko edozein farmazia-bulegotan jaso ditzakete botikak.

- ELKARRERAGINGARRITASUNA DUTEN ATZERRIKO HERRIALDEETARA BIDAIA

Elkarreragingarritasuna badago EBko kide diren hainbat herrialderekin, hala nola Portugal, Kroazia, Polonia, Finlandia, Estonia, Txekiar Errepublika, Letonia, Grezia, Lituania, Zipre eta Austriarekin. Herrialdeen zerrenda eguneratua Osasun Sailaren webgunean ikus daiteke.

- ELKARRERAGINGARRITASUNIK GABEKO ATZERRIKO HERRIALDEETARA BIDAIA:
 - Hilabete baino gutxiagoko joan-etorrietan: botikak farmazia-bulegoan jaso daitezke joan aurretik, kreditua eskuragarri badago.
 - Hilabete baino gehiagoko joan-etorrietan: errezetak inprima daitezke, gehienez 3 hilabetera arte, hori baita Medikamentuen eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziak (AEMPS) baimentzen duten gehieneko kopurua.

Presbidek inprimatutako errezetek hurrenez hurreneko datak dituztenez (adibidez, uztailaren 22a/abuztuaren 19a/irailaren 16a), botika hori atzerrira joan aurretik farmazian jaso ahal izateko, Osakidetzako profesionalak inprimatutako errezeten data zuzendu behar du, egungo data izan dezaten. Bestela, farmaziak ezin du sendagaia eman. Horretarako, medikuak Presbidek errezetari esleitu dion data ezabatu behar du eta uneko data idatzi. Ondoan idatzi behar da "Zuzenketa balio du", gero sinatu eta errezeta zigilatu.

Zuzenketa bestelako preskriptore batek egiten badu, preskriptore berri horrek, sinaduraz gain, bere datuak ere idatzi beharko ditu (izena, abizenak eta elkargokide-zenbakia), zuzenketa nork egin zuen identifikatu ahal izateko.

Bisa elektronikoa duten errezeta inprimatuen kasuan, zuzenketa ikuskatzaileari dagokio.

Informazio gehiago nahi izanez gero, esteka hau kontsulta daiteke: [PRESBIDE Viajes Impresiones de recetas y dispensaciones](#) (gaztelaniaz soilik).

10 INYESPRIN- ATZERRIKO SENDAGAIA

Inyesprin sendagaiak hornidura-arazoak izaten ditu maiz, eta, horregatik, askotan atzerriko sendagaiak erabili behar izaten dira.

AAS injektagarriko marka komertzial guztietan gertatzen den bezala (Inyesprin barne), bialek 900 mg lisina azetilsalizilato dituzte, hau da, 500 mg azido azetilsaliziliko. Laborategiaren arabera, etiketan edukia salizilikoaren edo lisina gatzaren arabera erakustea erabakitzen dute.

Lehen arretako biltegian eskuragarri dagoen medikamentua ASL (ACIDE ACETYLSALICYLIQUE) PANPHARMA da (ikus irudia).



[HASIERA-ra Itzuli](#)

Lehen Mailako Arretako Farmazia

Farmazialariak: Arantza Hernández, Javier Martínez, Inés San José eta María Prieto.

Iradokizunak edo iruzkinak egiteko, bidali posta elektronikoa helbide honetara:

ARABAKO ESI-A: farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus



Argitalpen honen edukia Osakidetza Lehen Mailako Arretako farmazialariek egindako hileroko buletinetik egokitu da FarmaHitzak buletinak Osakidetzaren intranetean daude eskuragarri hurrengo [estekaren](#) bidez